

GASTEIZKO TXOSNAK | AGERRALDIA | 2021/07/29

ENTXOSNATU EGUNA 2021

Herri mugimenduen bilgunea dira Gasteizko Txosnak : aisialdi eta jai eredu alternatibo baten iturria, hamaika borroken plaza, indarrean dauden joera eta balioak eraldatzeko aukera, parte hartzeko aukera, ikasteko aukera... Horiek dira Gasteizko Txosnak. Aukera bat, bai. Baina behar bat ere bai. Gasteizek behar duen iturria.

Iaz, 40 urte bete genituen urtean, herri mugimenduek sortu eta kudeatutako gunek feminista, herrikoi, parte-hartzaile eta euskaldunak etenaldi bat egitea erabaki genuen. Baina horrek ez du esan nahi gure jarduna bertan behera utzi genuenik: beti egon gara lanean, azken 41 urte hauetan lanean egon garen bezala: astero bilerak, koordinazio planak, baimenak... Izan ere, iaz esaten genuen bezala, Txosna Batzordea osatzen dugun kolektibok zein hiriko beste mugimendu, kolektibo eta eragileok kalean jarraitzen dugu. Ez gara inoiz bertatik joan. Kalean jarraitzen dugu kalea garelako eta kalean garelako ere. Kalean gara, kalea garelako. Egunez-egun, iñurri lana eginez gu guztiok gara kaleak eta plazak kolorez betetzen eta ureztatzen gabiltzanak.

Argi dugu. Gure lehentasuna, une honetan, krisi egoera honi modu kolektiboan aurre egitea da. Izan ere, guztion osasuna eta zaintza ezinbestekotzat ditugu. Kontziente gara: aurtengo Gasteizko Jaiek ere beste forma bat hartu beharko dute. Baina horrek ez du esan nahi besoak gurutzaturik ezer egin gabe geratuko garenik. Nola desagertuko gara kaleetatik gu geu kalea izanik? Gainera hemen bildu garenontzako irudikaezinak dira jaiak aldarrikapen eta eduki politikorik gabe. Jaiak musika, kontzertuak, irribarreak, tragoak eta zoriontasuna izateaz gain, jaiak ere aldarrikapenerako espazioa dira. Gasteizko jaiak egunerokotasunean presente ditugun gatazkak, nahiak, haserreak, zapalkuntza, ametsak... plazaratzeko gunek bat dira ere. Hortaz, urtean zehar Txosna Batzordea osatzen dugun kolektibok aurrera daramatzagun borroka guztiak ere presente egon dira orain arte eta presente egongo dira aurten. Harro eta ozen diogu azken 41 urteetan bezala Gasteizko jaietan aurten ere kaleak hartuko ditugula. Horregatik aurtengo abuztuaren 5ean Gasteizko herriari kaleak hartzeko deia egiten diogu.

Horretarako egun osoko egitaraua aurkezten dugu:

10.00 - Herri Azoka Burullerias plazan

11.00 - Gaztetxoentzako txokoa, Jolasak eta ipuin kontalaria Martin Ttipia plazan.

10:00 - Gasteizko Txosnetako 40 urte erakusketa Etxauri plazan.

14.00 - Herri Bazkaria Kampos Negros gunean.

18.30 - Manifestazioa Artiumetik hasita.

Aurten gainera ,inoiz ez bezala, bi txosnisari banatuko ditugu. 2020 . urteko txosnisaria aurten emango dugu ere. Oso argi izan dugu 40.urteurrena betetzen genuen urteko txosnisaria gure ibilbide osoa bizi izan duen kolektibo batentzat izango zela, baina ez horregatik bereziki. Baliteke azken urteetan lehen frontean kalean aktiboen egon den kolektiboa izatea Pentsionisten mugimendua eta horregatik saria soberan irabazi dute. Bestetik ,2021. urteko Txosnisaria pandemiaren eta instituzioen arduragabekeriaren ondorioen aurrean antolatzen eta kalea hartzen jakin duten ostalaritzako lagunentzat izango da.

Borroka feminista ehuntzen jarraitzen dugu, euskal preso politikoen etxeratzea lau haizetara oihukatzen dugu, gazteok bizitzaren hautua egiten dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu, munduko beste herrialde eta borrokekin distantzia txikitzen jarraitzen dugu, komunikatzeko modu alternatiboak daudela aldarrikatzen jarraitzen dugu, auzoak biziberritzen jarraitzen dugu... Finean beste bizi eta herri bat posible dela erakusten jarraitzen dugu.

Hala egin dugu eta hala egingo dugu. Ez ginelako inoiz joan. Ez garelako joan. Ez garelako joango.

Kalea gara eta kalean gara. Gora Gasteizko Txosnak!

GASTEIZKO TXOSNAK

GASTEIZKO TXOSNAK | APARICIÓN | 24/07/2020 KALEA GARA, KALEAN GARA!

Gasteizko Txosnak son el punto de encuentro de los movimientos populares: fuente de un modelo alternativo de ocio y fiesta, una plaza para miles de luchas, la posibilidad de transformar las normas y valores vigentes, la posibilidad de participar, de aprender... Esas son las Txosnas de Gasteiz. Una oportunidad, sí. Pero también una necesidad. Una fuente que Gasteiz necesita.

Este espacio feminista, popular, participativo y euskaldun creado y gestionado por los movimientos populares, el año pasado, el año en que cumplía 40 años, decidió hacer una pausa. Pero eso no quiere decir que abandonáramos nuestra actividad: siempre hemos estado trabajando, como hemos estado trabajando estos últimos 41 años: reuniones semanales, planes de coordinación, permisos... Porque, como decíamos el año pasado, tanto los colectivos que formamos la Comisión de Txosnas como los otros movimientos, colectivos y agentes de la ciudad seguimos en las calles. Nunca hemos ido. Seguimos en las calles porque somos calle y también porque somos en la calle. Estamos en la calle, porque somos la calle. Día tras día, haciendo trabajo de hormiga, somos todas nosotras las que estamos llenando de color y regando calles y plazas.

Lo tenemos claro. Nuestra prioridad en este momento es afrontar de forma colectiva esta situación de crisis. Esto es así porque la salud de todas y los cuidados nos son primordiales. Somos conscientes de que las Fiestas de Gasteiz de este año también tendrán que tomar una forma diferente. Pero eso no significa que nos vayamos a quedar de brazos cruzados y sin hacer nada. ¿Cómo vamos a desaparecer de las calles si solo somos en tanto que somos calle? Además, los que nos hemos reunido aquí no podemos imaginar unas fiestas sin reivindicación ni contenido político. Las fiestas son música, conciertos, sonrisas, tragos y alegría, pero son también un espacio para la reivindicación. Las fiestas de Gasteiz son también un espacio para visibilizar conflictos, deseos, el enfado y la opresión, incluso los sueños que tenemos presentes cada día. Por lo tanto, las luchas de los colectivos que formamos la Comisión de Txosnas a lo largo del año, que siempre han estado presentes hasta ahora, estarán igualmente presentes este año. Decimos alto y claro que, como en los últimos 41 años, este año volvemos a tomar las calles de Gasteiz. Por eso llamamos al pueblo de Gasteiz a tomar las calles el día 5 de agosto.

Para ello hemos organizado eventos durante todo el día:

10.00 - Feria Popular en la plaza de las Burullerías

11.00 - Txoko para los más jóvenes, con juegos y cuenta cuentos en la plaza Martín Ttipia.

10:00 - Exposición 40 años de Txosnas de Gasteiz en la plaza Etxauri.

14.00 - Comida popular en Kampos Negros.

18.30 - Manifestación desde Artium.

Este año, además, de forma especial, vamos a otorgar dos txosnisaris: daremos la txosnirsaria del 2020 también este año. Hemos tenido muy claro que la txosnisaria del año en que cumplíamos el 40º aniversario iba a ser para un colectivo que ha estado presente a lo largo de toda nuestra trayectoria. Pero no es el único motivo. Es probablemente el colectivo que ha estado más activo en la calle, en la primera línea de frente: el movimiento de los pensionistas. Y por eso se merecen de sobra este premio. Por otro lado, la Txosnisaria del año 2021 será para las compañeras de la hostelería, que han sabido organizarse y tomar las calles ante las consecuencias de la pandemia y la irresponsabilidad de las instituciones.

Seguimos tejiendo la lucha feminista, reivindicando que es hora de que los presos políticos vascos vuelvan a casa, haciendo ver que los jóvenes seguimos optando por la vida. Seguimos haciendo más corta la distancia con otros pueblos y luchas del mundo, seguimos reivindicando que hay formas alternativas de comunicación, seguimos dando vida a los barrios. En fin, seguimos demostrando que otro modelo de sociedad y otro modo de vida es posible.

Así lo hemos hecho y así lo haremos. Porque nunca fuimos. Porque no nos hemos ido. Porque no nos vamos a ir.

Kalea gara eta kalean gara. Gora Gasteizko Txosnak!

GASTEIZKO TXOSNAK